


HASIERA	Q
GAIKAK	
ANTZERKIAARTEABERTSOLARITZADANTZAERAKUSKETA EUSKARA IRITZI ARTIKULUAK JAIALDIAK JARDUNALDIK LITERATURA MUSIKAZINEMA BESTELAKOAK	
ATALAK	
KONTALARIAK BEREZIAK BULETINAMULTIMEDIA GURE BAZTERRETATIK KS ARETOA	
HERRIALDEKA	
ARABANAFARROA BEHEREABIZKAI GIPUZKOALAPURDINA AFARROA ZUBEROAEUSKALHERRIA	
ZOKKETAK	
DENDAOSTEKOAK KAMAK	

HOME / GAIKAK / LITERATURA / FERMIN ETXEGOIENEN 'TOTELAK' IZENENKO ELEBERRI HIBRIDOA AURKEZTU DU



(argazkia: Erein)

GIPUZKOA LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

FERMIN ETXEGOIENEN 'TOTELAK' IZENENKO ELEBERRI HIBRIDOA AURKEZTU DU

By KulturSharea / 2021-10-20

Kazetaritza, saiakera eta fikzioa uztartu ditu idazleak liburuan.

Fermin Etxegoien kazetari eta idazleak (Oñati, 1966) *Totelak* izeneko eleberrri hibridoa kaleratu du Erein argitaletxearen eskutik. Saiakera, kazetaritza eta fikzioa uztartzen dituen lana da, "euskaraz literaturan ohikoa den auto-pertzepzio ariketaren generoa (nor-gara-gu-zer-gara-gu) ezohiko eremuetara eramateko".

Eleberrria Maserati gorri batean. St. Moritz aldean bidaiatzen ari den bikote batekin abiatzen da, emakumeak bularreko minbizia itxuraz gairatu duela ospatu nahi dute. Thomas Mann-ek *Mendi Magikoa* eleberrian ezagutzera eman zuen ospitalea ere bisitatu nahi du bikoteak. Burutazio bikaina etorriko zaie bidaiari, euskalgintzari onura ekonomiko handia ekar diezaiokena.

Idazlea, bestetik, Santanderren kalean jotzen ari den musikari frustratu bati buruz hitz egiten du liburuan. "Ezustean, harreman estua izan beharko du Ruper Ordorika musikariarekin eta bizitza aldatuko zaio".

Eleberrriaren gatazka gune nagusia da "euskaraz kultura garaikidean ageri diren errealitate mugatzaileak eta fikziozko pertsonaien jarrera kontrajarriak haien aurrean", adierazi du egileak.



Etxegoienek azaldu duenez, "euskalduna da... bere aukera linguistikoen gainetik bizitzen saiatzen dena. Gure inkontziente kolektibo linguistikoa oso erdalduna da eta erdaraz edozein erregistro onartzen dugu, euskaraz ez bezala, non ia edozerk kanporatzen gaituen narratibotik".

Egileak kutuntzat dituen hainbat gai aztertu ditu liburuan *larritasuneraino*: Euskara, espainiar kulturak, Ruper Ordorika, mikro-geografiak.

Totelak ezohiko bidaiari liburu bat da. Espazioan ez ezik, denboran ere bestelako bideak hartu baititu autoreak. "Euskaldunontzat mugatzaile diren zenbait errealitatearen gainean, fikziozko *tour de force* original, sakon, gordin eta zirikatzaile bat".

Zabandu:

Tags: Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Fermin Etxegoien, Totelak

 <p>ALEX GURRUTXAGA, TXANI RODRIGUEZ, JAVIER DE ISUSI, ETA MIKEL REPARAZ DIRA EUSKADI LITERATURA SARIETAKO GAINONTZEKO LAU SARITUAK</p>	<p>ABIAN DA ARABAR GAZTETXOENTZAKO BIDEO-KOPLA LEHIAKETA</p> 
--	--

BILATU

Bilatu ...	BILATU
------------	--------



Lege oharra



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Salburuordetzak) diruz lagundua



KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

